

## **HERRI IRTEERA**

Beste urte batzuetan egin den bezala, aurten ere gabonetan bildutako diruarekin irteera bat egitea erabaki da.

Aurten, Elizondo aldean dagoen Bertiz Natur Parkera joango gara egun pasa. Bertan, ibilbideak, parkea eta bazkaltzeko txokoa daude. Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du.

Irteera, **Ekainaren 22an**, goizeko 9:30etan Larraulgo plazatik egingo da eta itzulera berriz arratsaldeko 20:00ak aldera.

Irteerara joateko prest dauden herritarrak Katillu-txulo Elkartean eta Herriko Ostatuan izango dituzte izena emateko orriak eta honetarako emateko azken eguna ekainak 18 izango da.

## **SAN JUAN SUA**

Aurten ere ekainaren 23an San Juan Sua egingo dugu Plazan eta horren inguruan afaria.

Afarira etorri nahi duzuen guztiok Katillu-txulo Elkartean eta Herriko Ostatuan izango dituzue izena emateko orriak.

Eta afaria prestatzen laguntzeko prest zaudetenok ere Elkartean izango duzue izena emateko orria.

## **KULTUR BATZORDEAK**